



## TOKIKO GOBERNU BATZARRA

2026.01.27

**Alkatea:**  
**Angel Martinez de Rituerto Arregui**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Ander Figuerido Zubiria**  
**Cristina Pelaez Errazquin**  
**Aitor Aguirresarobe Murgui**  
**Miren Yosune Sanz Vidal**

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita seiko urtarrilaren hogeita zazpian, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

**Ez da bertaratu:**  
**Goiuri Eceiza Arandia**

**Udal idazkaria:**  
**Sara Berasategui Fuertes**

**Kontu-hartzaile akzidentala:**  
**Paulino Alonso Eraso**

**1. Akta hauek onartzea:**

2025eko abenduaren 23koa eta 2025eko abenduaren 30eko ezohiko batzarraren akta.

**2. Onartzea, hala badagokio, Alcohólicos Anónimos de Gipuzkoa "Area 3" elkarteari (IFK: G20984399) Amarotz 34B- ezk. helbidean dagoen udal jabari publikoko lokalaren emakida, modu partekatuan, baimentzea.**

**3. Onartzea, hala badagokio, Multicultural Ereite elkarteari (IFK: G20904967) Amarotz 34B- ezk. helbidean dagoen udal jabari publikoko lokalaren emakida, modu partekatuan, baimentzea.**

**4. Onartzea, hala badagokio, Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren arteko lankidetzeta-hitzarmena.**

**5. Onartzea, hala badagokio, Tolosako Udalaren eta Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen arteko hitzarmena sinatzea.**



**6. Onartzea, hala badagokio, Tolosako Udalaren eta Laskorain ikastolaren arteko hitzarmena sinatzea.**

**7. Dekretu hauen berri ematea:**

**2025/3063 Dekretua: 2025/102 faktura zerrenda.**

**2025/3062 Dekretua: 2025/103 faktura zerrenda.**

**2025/3061 Dekretua: 2025/104 faktura zerrenda.**

**2025/3077 Dekretua: 2025/105 faktura zerrenda.**

**2025/3076 Dekretua: 2025/106 faktura zerrenda.**

**2026/27 Dekretua: 2025/107 faktura zerrenda.**

**2026/26 Dekretua: 2025/108 faktura zerrenda.**

**2024/1933 Dekretua: 2025/109 faktura zerrenda.**

**2025/2186 Dekretua: 2025/110 faktura zerrenda.**

**2026/106 Dekretua: 2025/111 faktura zerrenda.**

**2026/105 Dekretua: 2025/112 faktura zerrenda.**

**2026/104 Dekretua: 2025/113 faktura zerrenda.**

**2026/111 Dekretua: 2025/114 faktura zerrenda.**

**2026/110 Dekretua: 2025/115 faktura zerrenda.**

**2026/152 Dekretua: 2025/116 faktura zerrenda.**

**2026/151 Dekretua: 2025/117 faktura zerrenda.**



**1. AKTA HAUEK ONARTZEA: 2025EKO ABENDUAREN 23KOA ETA 2025EKO ABENDUAREN 30EKO EZOHIKO BATZARRAREN AKTA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

**2. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ALCOHÓLICOS ANÓNIMOS DE GIPUZKOA "AREA 3" ELKARTEARI (IFK: G20984399) AMAROTZ 34B- EZK. HELBIDEAN DAGOEN UDAL JABARI PUBLIKOKO LOKALAREN EMAKIDA, MODU PARTEKATUAN, BAIMENTZEA.**

**IKUSIRIK**

LEHENA.- 2025eko uztailaren 29ko datarekin, txosten teknikoa igorri duela Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko teknikariak, eta honako proposamen hau adierazi duela:

*"LEHENA.- Tolosako Udalak ASOCIACIÓN ALCOHÓLICOS ANÓNIMOS DE GIPUZKOA"AREA 3" -ri demaniozko baimena ematea AMAROTZ 34 B. BEHE OINAK EZKERRAn kokatuta dagoen lokala erabiltzeko.*

*BIGARRENA.- Demaniozko baimen hori programa hau garatzera baldintzatuta ego-  
tea:*

*Pertsona migratuak Tolosako udalerrian integratzen lagunduko duten jarduerak egi-  
tea, arrazakeria-egoerak saihestuz eta kultura-aniztasuna bultzatuz.*

*HIRUGARRENA.- Demaniozko baimen horrek erabilera honen ezaugarria  
errespetatu behar izatea: araudian jasotzen duen gehieneko epean, hau da lau urt  
eta konpartituko duen beste elkarteekin adostutako ordutegian, aste bukaerata  
goizeko-arratsaldeko ordutegian (11:00-13:00 edota 16:00-20:00).*

*Era berean, doan ematea.*



*LAUGARRENA.- Tolosako Udalak emandako demaniozko baimenak baldintza hauek bete beharko ditu:*

*1. Debekatuta daude jarduera hauek:*

- *Erabilitako lokalaren barruan ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin. Gainera, dokumentu, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera ez sexistak erabili beharko da; emakumeen irudi diskriminatzaile eta estereotipo sexistak saihestu beharko dira; eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren edo genero-identitateen balioak biltzen hartzen dituen irudia sustatu beharko da.*
- *Irabazi-asmoarekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.*
- *Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera.*

*2. Baimenduak araudiko 13. ataleko puntuan jasotako betebeharrak izango ditu:*

- ...

*BOSGARRENA.- Ezartzea, baimenaren indarraldia bukatutakoan, baimenduak ondo zainduta eta ondo erabilia itzuli beharko duela lokala.*

*SEIGARRENA.- Agintzea, baimena duenak erantzun egin beharko duela egindako jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz sortutako kalteengatik. Baimenduak Udal honi nahiz hirugarrenei egindako kalteengatik erantzungo du.*

*ZAZPIGARRENA.- Agintzea erantzukizunezko-poliza egin behar dela higieziari, pertsonari edo hirugarrenei egindako kalteen aurrean erantzuteko, eta gutxieneko kopurua 300.000 eurokoa izango dela.*

*ZORTZIGARRENA.- Ohartaraztea, interesdunak justifikatu egin beharko duela zehaztutako aseguru-polizak hitzartuta dituela, bai eta dagozkion ordainagirien ordainketak ere, erabiltzeko baimena eman eta hamabost laneguneko epean. Horrela ez balitz, erabilera-baimena bertan behera geldituko da eta elkarteak hustu egin beharko du lokala, eta giltzak itzuliko dizkio Udalari.*

*BEDERATZIGARRENA.- Ezartzea, baimena indarririk gabe geratuko dela, baldin eta baimendunak ondasuna adierazitako helburuetarako erabiltzen ez badu, edo adierazitako betebeharren bat edo legez dagozkien betebeharrak betetzen ez baditu.*



*HAMARGARRENA.- Baimenduak guztiz errespetatu beharko du udal-jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia, herritarren erakunde eta kolektiboen aldekoa.*

*HAMAIKAGARRENA.- Erabaki hau Hirigintza eta Obrak Azpisailari jakinaraztea, dagokion txosten teknikoa egin dezaten."*

## KONTUAN HARTURIK

**LEHENA.-** 2025eko irailaren 15eko datarekin, Hirigintza eta Obrak Azpisailak egindako txostenean jasotzen dena:

- *LEHENA.- Hirigintza eta Obrak Azpisailak egindako txostenean oinarrituz, EGO-KITZAT ematea aipatutako lokala erabiltzeko baimena.*
- *BIGARRENA.- Kontuan izanik lokalak erabilera soziokulturala izango duela, jarduera hori arautuko du 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak, besteak beste.*
- *HIRUGARRENA.- Erabaki hau Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari jakinaraztea, dagokion txosten juridikoa egin dezan.*

**BIGARRENA.-** 2026ko urtarrilaren 9ko datarekin, ALDEKO iritzia adierazi duela Idazkaritzak dagokion espedientean.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea ASOCIACIÓN ALCOHÓLICOS ANÓNIMOS DE GIPUZKOA"AREA 3"-ri (IFK: G20984399) Tolosako Amartz auzoa 34B – Ezkerrean (Posta kodea: 20400) dagoen eta 7575123 katastro- erreferentzia duen udal-titulartasuneko ondasun higiezinaren emakida zuzeneko esleipen-prozeduraren bidez, pertsona migratuak Tolosako udalerrian integratzen lagunduko duten jarduerak egiteko, arrazakeria-egoerak saihestuz eta kultura-aniztasuna bultzatuz. Lokala Multicultural Ereite elkartearekin modu partekatuan erabili beharko du adostutako ordutegian.



**BIGARRENA.**- Elkarrekin ez du tasarik ordaindu beharko, 93.4 artikulua 2. atalean jasotakoari helduta: *«Ez dira tasari lotuta egongo, jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak emakidadunari onura ekonomikorik ez dakarkionean, edo, onura hori egonda ere, erabilerak edo aprobetxamenduak onura hori baliogabetzen edo hutsaltzen duten baldintzak edo kontraprestazioak dakarkionean onuradunari».*

**HIRUGARRENA.**- Emakidak 4 urteko iraupena izango du.

**LAUGARRENA.**- Ondorengo baldintzetan onartzen da emakida:

1.- Kontuan izanik lokalak erabilera soziokulturala izango duela, jarduera hori arautuko du 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak, besteak beste.

2.- Tolosako udaleko araudia kontuan izanik, konkretuki, Udal Jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko herritarren erakunde eta kolektiboentzako baimenak edo lagapenak kudeatzeko araudia, 2023ko ekainaren 19an, 117 zenbakiko GAO argitaratua,

- Debekatuta daude jarduera hauek:

- Erabilitako lokalaren barruan ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin. Gainera, dokumentu, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera ez sexista erabili beharko da; emakumeen irudi diskriminatzaile eta estereotipo sexistak saihestu beharko dira; eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren edo genero-identitateen balioak biltzen hartzen dituen irudia sustatu beharko da.
- Irabazi-asmoarekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.
- Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera.

- Baimenduak araudiko 13. ataleko puntuan jasotako betebeharrak izango ditu:

- Baimenaren ebazpenean ezarritako erabilera-ordutegiak edo Tolosako Udalak baimentzen dizkion beste batzuk errespetatzea.
- Espazioa elkarte edo kolektiboaren helburuetarako erabiltzea.
- Lokalean hirugarrenen inolako merkataritza-publizitaterik ez egitea.
- Esleitutako espazioak errespetatzea.
- Erabilera komuneko espazioen helburua eta xedea errespetatzea.



- Elkarre edo kolektiboek modu arduratsuan zaindu beharko dituzte erabilera esklusiboko eta erabilera partekatuko lokalak eta higiezin osoa. Erakunde onuradunari dagokio baimenean sartutako ondasun higigarriak zaintzea eta konponetzea.
  - Elkarre edo kolektiboek izango dute baimendutako lokalaren mantenuko gastu arrunten ardura, Udalak justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.
  - Erabilera-ordutegietan, bizilagunei enbarazurik ez eragitea eta inguruko lasaitasuna ez haustea.
  - Esleitutako espazioak osasungarritasun- eta higieze-baldintza egokietan erabiltzeko moduan zaintzea.
  - Lokaleko eta eraikineko giltzak zaintzea eta ateak ixtea.
  - Esleitutako espazioaren erabilera hirugarrenei ez lagatzea.
  - Sortzen diren anomalia, gorabehera edo arazoak Tolosako Udalari berehala jakinaraztea.
  - Baimen-erabakia iraungi edo ezeztatu ondoren, Udalari itzultzea baimenaren xede diren espazio eta ondasunen erabilera.
  - Udalari uneoro baimena ematea indarrean dagoen araudia eta erabilera baimentzeko erabakia betetzen dela zaintzeko jarraipen- eta ikuskapen-ahalmena balia dezan.
  - Tabakoa eta edari alkoholduak eta osasunerako kaltegarriak diren substantziak ez kontsumitzea, eta ez instalatzea haiek kontsumitzera bultzatzen duen publiziterik, ez eta publizitate sexistarik ere.
  - Beste elkarre edo kolektibo batzuei lokalaren erabilera ahalbidetzea, salbuespen gisa baimendutako unean uneko jarduerak garatzeko.
  - Erabiltzaileak bete beharko du Tolosako Udalak euskararen erabileraren normalizazioari begira indarren duen plana.
  - Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan zabalduko ditu herritarrei zuzendutako komunikazioak, izan idatzizkoak, izan ahozkoak.
  - Idatzizkoetan, ele bietan jartzen direnean, euskarari eman behar zaio lehentasuna. Testua euskara hutsean idatziko da hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, edo ezagunak direnean.
  - Bestalde, piktograma (irudia) baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adieraziko dira.
  - Jardueretan, ahozkoan ere euskarak lehentasuna izango du.
- Indarraldia bukatutakoan, baimenduak ondo zainduta eta ondo erabilia itzuli beharko du lokala.



- Baimena duenak erantzun egin beharko du egindako jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz, sortutako kalteengatik. Baimenduak Udal honi nahiz hirugarrenei egindako kalteengatik erantzungo du, horretarako gutxienez 300.000 euroko estaldura daukan erantzukizun zibileko poliza kontratatuta.
- Baimena indarrik gabe geratuko da, baldin eta baimendunak ondasuna adierazitako helburuetarako erabiltzen ez badu, edo adierazitako betebeharren bat edo legez dagozkien betebeharrak betetzen ez baditu.
- Baimenduak guztiz errespetatu beharko du udal-jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia, herritarren erakunde eta kolektiboen aldekoa.

**BOSGARRENA.**- Hartzen den erabakiari legez aurreikusitako publizitatea ematea.

**3. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, MULTICULTURAL EREITE ELKARTEARI (IFK: G20904967) AMAROTZ 34B- EZK. HELBIDEAN DAGOEN UDAL JABARI PUBLIKOKO LOKALAREN EMAKIDA, MODU PARTEKATUAN, BAIMENTZEA.**

**IKUSIRIK**

LEHENA.- 2025eko uztailaren 23ko datarekin, txosten teknikoa igorri duela Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko teknikariak, eta honako proposamen hau adierazi duela:

*“LEHENA.- Tolosako Udalak MULTICULTURAL EREITE ELKARTEAri demaniozko baimena ematea AMAROTZ 34 B. BEHE OINAK EZKERRAn kokatuta dagoen lokala erabiltzeko.*

*BIGARRENA.- Demaniozko baimen hori programa hau garatzera baldintzatuta ego-  
tea:*

*Pertsona migratuak Tolosako udalerrian integratzen lagunduko duten jarduerak egi-  
tea, arrazakeria-egoerak saihestuz eta kultura-aniztasuna bultzatuz.*



*HIRUGARRENA.- Demaniozko baimen horrek erabilera honen ezaugarriak errespetatu behar izatea: araudian jasotzen duen gehieneko epean, hau da lau urte eta konpartituko duen beste elkarteekin adostutako ordutegian, aste bukaeratan goizeko-arratsaldeko ordutegian (11:00-13:00 edota 16:00-20:00).  
Era berean, doan ematea.*

*LAUGARRENA.- Tolosako Udalak emandako demaniozko baimenak baldintza hauek bete beharko ditu:*

*3. Debekatuta daude jarduera hauek:*

- Erabilitako lokalaren barruan ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin. Gainera, dokumentu, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera ez sexista erabili beharko da; emakumeen irudi diskriminatzaile eta estereotipo sexistak saihestu beharko dira; eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren edo genero-identitateen balioak biltzen hartzen dituen irudia sustatu beharko da.*
- Irabazi-asmoarekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.*
- Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera.*

*4. Baimenduak araudiko 13. ataleko puntuan jasotako betebeharrak izango ditu:*

- ...*

*BOSGARRENA.- Ezartzea, baimenaren indarraldia bukatutakoan, baimenduak ondo zainduta eta ondo erabilia itzuli beharko duela lokala.*

*SEIGARRENA.- Agintzea, baimena duenak erantzun egin beharko duela egindako jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz sortutako kalteengatik. Baimenduak Udal honi nahiz hirugarrenei egindako kalteengatik erantzungo du.*

*ZAZPIGARRENA.- Agintzea erantzukizunezko-poliza egin behar dela higiezonei, pertsoneri edo hirugarrenei egindako kalteen aurrean erantzuteko, eta gutxieneko kopurua 300.000 eurokoa izango dela.*



**ZORTZIGARRENA.-** Ohartaraztea, interesdunak justifikatu egin beharko duela zehaztutako aseguru-polizak hitzartuta dituela, bai eta dagozkion ordainagiriaren ordainketak ere, erabiltzeko baimena eman eta hamabost laneguneko epean. Horrela ez balitz, erabilera-baimena bertan behera geldituko da eta elkarrekin hustu egin beharko du lokala, eta giltzak itzuliko dizkio Udalari.

**BEDERATZIGARRENA.-** Ezartzea, baimena indarrik gabe geratuko dela, baldin eta baimendunak ondasuna adierazitako helburuetarako erabiltzen ez badu, edo adierazitako betebeharren bat edo legez dagozkien betebeharrak betetzen ez baditu.

**HAMARGARRENA.-** Baimenduak guztiz errespetatu beharko du udal-jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia, herritarren erakunde eta kolektiboen aldekoa.

**HAMAIKAGARRENA.-** Erabaki hau Hirigintza eta Obrak Azpisailari jakinaraztea, dagokion txosten teknikoa egin dezaten.”

## KONTUAN HARTURIK

**LEHENA.-** 2025eko irailaren 15eko datarekin, Hirigintza eta Obrak Azpisailak egindako txostenean jasotzen dena:

- **LEHENA.-** *Hirigintza eta Obrak Azpisailak egindako txostenean oinarrituz, EGOKITZAT ematea aipatutako lokala erabiltzeko baimena.*
- **BIGARRENA.-** *Kontuan izanik lokalak erabilera soziokulturala izango duela, jarduera hori arautuko du 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak, besteak beste.*
- **HIRUGARRENA.-** *Erabaki hau Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari jakinaraztea, dagokion txosten juridikoa egin dezan.*

**BIGARRENA.-** 2026ko urtarrilaren 9ko datarekin, ALDEKO iritzia adierazi duela Idazkaritzak dagokion espedientean.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Multicultural Ereite elkarteari (IFK: G20904967) Tolosako Amartz auzoa 34B – Ezkerrean (Posta kodea: 20400) dagoen eta 7575123 katastro-erreferentzia duen udal-titulartasuneko ondasun higiezinaren emakida zuzeneko esleipen-prozeduraren bidez, pertsona migratuak Tolosako udalerrian integratzen lagunduko duten jarduerak egiteko, arrazakeria-egoerak saihestuz eta kultura-aniztasuna bultzatuz. Lokala Uzturre Alcohólicos Anónimos elkartearekin modu partekatuan erabili beharko du adostutako ordutegian.

**BIGARRENA.-** Elkarreak ez du tasarik ordaindu beharko, 93.4 artikulua 2. atalean jasotakoari helduta: *«Ez dira tasari lotuta egongo, jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak emakidadunari onura ekonomikorik ez dakarkionean, edo, onura hori egonda ere, erabilerak edo aprobetxamenduak onura hori baliogabetzen edo hutsaltzen duten baldintzak edo kontraprestazioak dakarzkionean onuradunari».*

**HIRUGARRENA.-** Emakidak 4 urteko iraupena izango du.

**LAUGARRENA.-** Ondorengo baldintzetan onartzen da emakida:

1.- Kontuan izanik lokalak erabilera soziokulturala izango duela, jarduera hori arautuko du 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak, besteak beste.

2.- Tolosako udaleko araudia kontuan izanik, konkretuki, Udal Jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko herritarren erakunde eta kolektiboentzako baimenak edo lagapenak kudeatzeko araudia, 2023ko ekainaren 19an, 117 zenbakiko GAO argitaratua,

- Debekatuta daude jarduera hauek:

- Erabilitako lokalaren barruan ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin. Gainera, dokumentu, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera ez sexista erabili beharko da; emakumeen irudi diskriminatzaile eta estereotipo sexistak saihestu beharko dira; eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren edo genero-identitateen balioak biltzen hartzen dituen irudia sustatu beharko da.
- Irabazi-asmoarekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.
- Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera.



- Baimenduak araudiko 13. ataleko puntuan jasotako betebeharrak izango ditu:
- Baimenaren ebazpenean ezarritako erabilera-ordutegiak edo Tolosako Udalak baimentzen dizkion beste batzuk errespetatzea.
  - Espazioa elkarte edo kolektiboaren helburuetarako erabiltzea.
  - Lokalean hirugarrenen inolako merkataritza-publizitaterik ez egitea.
  - Esleitutako espazioak errespetatzea.
  - Erabilera komuneko espazioen helburua eta xedea errespetatzea.
  - Elkarte edo kolektiboek modu arduratsuan zaindu beharko dituzte erabilera esklusiboko eta erabilera partekatuko lokalak eta higiezin osoa. Erakunde onuradunari dagokio baimenean sartutako ondasun higigarriak zaintzea eta konpontzea.
  - Elkarte edo kolektiboek izango dute baimendutako lokalaren mantenuko gastu arrunten ardura, Udalak justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.
  - Erabilera-ordutegietan, bizilagunei enbarazurik ez eragitea eta inguruko lasaitasuna ez haustea.
  - Esleitutako espazioak osasungarritasun- eta higieze-baldintza egokietan erabiltzeko moduan zaintzea.
  - Lokaleko eta eraikineko giltzak zaintzea eta atearak ixtea.
  - Esleitutako espazioaren erabilera hirugarrenei ez lagatzea.
  - Sortzen diren anomalia, gorabehera edo arazoak Tolosako Udalari berehala jakinaraztea.
  - Baimen-erabakia iraungi edo ezeztatu ondoren, Udalari itzultzea baimenaren xede diren espazio eta ondasunen erabilera.
  - Udalari uneoro baimena ematea indarrean dagoen araudia eta erabilera baimentzeko erabakia betetzen dela zaintzeko jarraipen- eta ikuskapen-ahalmena balia dezan.
  - Tabakoa eta edari alkoholikoa eta osasunerako kaltegarriak diren substantziak ez kontsumitzea, eta ez instalatzea haiek kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik, ez eta publizitate sexistarik ere.
  - Beste elkarte edo kolektibo batzuei lokalaren erabilera ahalbidetzea, salbuespen gisa baimendutako unean uneko jarduerak garatzeko.
  - Erabiltzaileak bete beharko du Tolosako Udalak euskararen erabileraren normalizazioari begira indarren duen plana.
  - Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan zabalduko ditu herritarrei zuzendutako komunikazioak, izan idatzizkoak, izan ahozkoak.
  - Idatzizkoetan, ele bietan jartzen direnean, euskarari eman behar zaio lehentasuna. Testua euskara hutsean idatziko da hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, edo ezagunak direnean.
  - Bestalde, piktograma (irudia) baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adieraziko dira.
  - Jardueretan, ahozkoan ere euskarak lehentasuna izango du.



- Indarraldia bukatutakoan, baimenduak ondo zainduta eta ondo erabilia itzuli beharko du lokala.
- Baimena duenak erantzun egin beharko du egindako jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz, sortutako kalteengatik. Baimenduak Udal honi nahiz hirugarrenei egindako kalteengatik erantzungo du, horretarako gutxienez 300.000 euroko estaldura daukan erantzukizun zibileko poliza kontratatuta.
- Baimena indarrik gabe geratuko da, baldin eta baimendunak ondasuna adierazitako helburuetarako erabiltzen ez badu, edo adierazitako betebeharren bat edo legez dagozkien betebeharrak betetzen ez baditu.
- Baimenduak guztiz errespetatu beharko du udal-jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia, herritarren erakunde eta kolektiboen aldekoa.

**BOSGARRENA.-** Hartzen den erabakiari legez aurreikusitako publizitatea ematea.

#### **4. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.**

### **IKUSIRIK**

LEHENA.- 2025eko irailaren 22(e)ko datarekin, txosten teknikoa igorri duela Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko teknikariak, eta honako proposamen hau adierazi duela:

*LEHENA.- Ontzat ematea EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartearen arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenak farmazia sarearen eta udaletako gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako ezartzen dituen mekanismoak, eta Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartearen arteko hitzarmen espezifikoak onartu eta sinatzea.*



*BIGARRENA.- Proposamena helaraztea Idazkaritza eta Kontuhartzailletza sailei, beren iritzia eman dezaten*

*HIRUGARRENA.- Proposamen hau ontzat eman eta hitzarmen berria sinatzearekin batera, 2009an Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Botiken elkargoaren artean izenpetutako hitzarmena iraungitzat emango da.*

## KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 2025eko urriaren 23(e)ko datarekin, txosten juridikoa igorri dela, eta aldeko baldintzatua dela, hitzarmeneko baldintza batzuk aldatzeko proposamenarekin. Aldaketa horiek bi aldeek onartu dituzte eta behin betiko hitzarmenean txertatu dira.

BIGARRENA.- 2025eko abenduaren 5(e)ko datarekin, oharra egin duela kontuhartzailletza Sailak, fiskalizazio txostena ez dagokiola adieraziz.

HIRUGARRENA.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. f) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespina ematea: Alkatea.

LAUGARRENA.- Bestalde, Tolosako Alkatetzak, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Dekretuaren bitartez, lankidetzahitzarmenak onartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea erabaki zuen. Horiek horrela, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

LEHENA.- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako lankidetzahitzarmena onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

BIGARRENA.- Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

HIRUGARRENA.-Hitzarmena hitzarmenen erregistroan inskribatzea, eta Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.



HIRUGARRENA.- Erabaki hau Idazkaritza Sailari eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailari jakinaraztea.

## **5. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALAREN ETA HERRIKIDE-ESKOLAPIOAK IKASTETXEAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA.**

### **IKUSIRIK**

BAKARRA.- Hezkuntza Politika Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko abenduaren 3an, probidentzia bat eman zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Herrikide-Eskolapioak ikastetxearekin hitzarmena egiteko, eskolako patioa asteburuetan irekitzeko.

### **KONTUAN HARTURIK**

LEHENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko abenduaren 12an egindako txostenean, hitzarmenaren memoria egin zuela. Gogora ekarri zuen Udalak badituela gai horrekin lotutako eskumenak, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan finkatuak: «10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea»; «19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea»; eta «36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea». Era berean, nabarmendu zuen badela eskaera herrian: Nerabeen Foroak 2024ko maiatzaren 14an aurkeztutako hamazazpi proposamenetako bat da —«Nerabeentzako toki estaliak erdigunean, eguraldi txarra egiten duenerako»—, eta Tolosako Herritarren Batzarraren K gomendioa ere lotuta dago horrekin —«13-18 urteko gazteek ez dute sarbide publikoko espazio estalirik inoren tutoretzapean egon gabe egon eta sozializatzeko (batez ere neguan)»—. Tolosako Hezkuntza Mahaian landutako proposamenetako bat ere izan zen jolastokiak zabaltzea.

BIGARRENA.- Txosten juridikoa egin zuela Idazkaritza Saileko teknikariak 2025eko abenduaren 16an, eta proposamenaren aldeko iritzia eman duela.

HIRUGARRENA.- Kontu Hartzailletza Saileko teknikariak, 2026ko urtarrilaren 20an, hitzarmena sinatzearen aldeko txostena egin zuela, betiere 2026ko udal-aurrekontua indarrean egoteko baldintzapean.



LAUGARRENA.- Hitzarmena egiteko eskumena Alkatearena dela, kontuan hartuta zer zehazten duen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 artikuluan. Hala ere, Tolosako alkateak, 2023ko uztailaren 3an, 2023/1707 Alkatetza Dekretuaren bidez, erabaki zuen zenbait ahalmen Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, eta tartean da hitzarmenak onestea, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpokoak badira. Beraz, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio ebaztea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosako Udalaren eta Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen arteko hitzarmena sinatzea, betiere 2026ko udal-aurrekontua indarrean egoteko baldintzapean. Honako eduki hau du hitzarmenak:

### HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA HERRIKIDE-ESKOLAPIOAK IKASTETXEAREN ARTEKOA

Tolosan, azken sinadura digitalean ageri den datan

#### ELKARTURIK

**Alde batetik**, Aitor Aguirresarobe Murgui, Tolosako Udaleko Hezkuntza Politika Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

**Eta bestetik**, Gartxot Aguirre Zabala (NAN: 4146236-J), Herrikide-Eskolapioak ikastetxeko zuzendaria (IFK: R2000408A).

#### ESKU HARTZEN DUTE

**Lehenak**, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3

ESKUD7c59b70-0783-4344-abe4-b83538f81426



artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

**Bigarrenak**, Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen izenean, Julio Boned Juliani notarioaren aurrean egindako ahalordetzaren bidez baimenduta.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna, eta ondorio horretarako

### **AZALTZEN DUTE**

- I. 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25.1. artikuluan honako hau ezartzen duela: «*Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake*».
- II. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan finkatzen dituena toki-erakundeen eskumenak, eta tartean daudela osasun publikoa sustatzea (17.1.10), kirola sustatzea (17.1.19) eta gazteria-politikak antolatzea (17.1.36).
- III. Tolosako Udalak interesa daukela udalerrian dauden askotariko instalazioak herritarren eskura jartzeko, kirol-jarduerak eta aisialdikoak egiteko, batez ere umeak eta gazteak gogoan hartuta. Herritarren ohiko eskaera da azpiegitura horiek erabili ahal izatea, eta bat dator Udalak kirol-osasuna sustatzeko eta herri bizigarria egiteko duen helburuarekin.
- IV. Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen azpiegiturak baliagarriak direla Tolosako Udalak herritarrei jolastokiak irekitzeko duen helbururako.
- V. Herrikide-Eskolapioak ikastetxeak, Tolosarekin duen erantzukizun soziala kontuan hartuta, bat egiten duela Udalak kirol-osasuna sustatzeko eta herri bizigarria egiteko daukan helburuarekin.

Eta ados daudenez, hitzarmen hau formalizatzen dute bi aldeek, honako klausula hauekin:



## KLAUSULAK

### **Lehena. Xedea.**

Hitzarmen honen helburua da lankidetzako eremu bat ezartzea Tolosako Udalaren eta Herrikide-Eskolapioak ikastetxearen artean, jolastoki-azpiegitura batzuk herritarrentzat erabilgarri jartze aldera.

### **Bigarrena. Jabetza eta lagatzea.**

Ikastetxearen jabetzakoa da erabili nahi den azpiegitura. Itun honen helburua da eremu horretako kanpo-patioa herritarrei irekitzea, zehaztutako ordutegi eta baldintzetan.

### **Hirugarrena. Egutegia eta ordutegia.**

Ikastetxeko patioa larunbatetan eta igandeetan erabili ahal izango da, uztailean eta abuztuan izan ezik, ordutegi honetan: ekainetik urrira, biak barne, 10:00etatik 20:00etara; azarotik martxora, biak barne, 10:00etatik 19:00etara.

Erabilera eskola-ordutegitik kanpokoa izango da betiere. Era berean, azpiegiturak ezingo dira erabili eskola-kiroleko jarduerak edo ikastetxearen bestelako ekintzak egiten ari direnean.

### **Laugarrena. Irekitzea eta ixtea.**

Tolosako Udaltzaingoa arduratuko da dagokion ordutegian ikastetxeko kanpoko atea irekitzeaz eta ixteaz.

### **Bosgarrena. Garbiketa eta mantentzea.**

Herrikide-Eskolapioak ikastetxea arduratuko da patioa eta kirol-eremua garbitzeaz eta mantentzeaz.

### **Seigarrena. Aseguruak.**

Herrikide-Eskolapioak ikastetxeak egingo ditu dagozkion aseguruak.

### **Zazpigarrena. Tolosako Udalaren konpromisoak.**

Lankidetzaz hitzarmen honen arabera, konpromiso hauek hartzen ditu Tolosako Udalak:

- Udaltzaingoaren bidez atea irekitzea eta ixtea, eta aldian aldiko zaintza-lanak egitea.
- Herritarrei informazioa ematea, azpiegitura horiek egoki erabiltzeko helburuz.



- Herrikide-Eskolapioak ikastetxeko hileko 400 euroko ekarpena egitea. Ordainketa egiteko, dagokion faktura helarazi beharko du, bi epetan: 2026ko ekainean, urtarriletik ekainera arteko epeari dagokiona, eta 2026ko abenduan, irailetik abendura arteko zatia.

#### **Zortzigarrena. Hirugarrenei uztea.**

Udalak inolaz ere ezin dizkie utzi hirugarrenei hitzarmen honen xede diren azpiegiturak.

#### **Bederatzigarrena. Klausulak ez betetzea.**

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio betetzen ez duen alderdiari, epe jakin batean bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori hitzarmenaren betearazpenaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoia dagoela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Arrazoi horrengatik hitzarmena suntsiarazten bada, eragindako kalteen kalte-ordaina eman ahal izango da, hala aurreikusitako bada.

#### **Hamargarrena. Iraupena.**

Hitzarmen hau indarrean egongo da 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

#### **Hamaikagarrena. Jarraipen-batzordea.**

Hitzarmen hau egoki betetzen dela bermatzeko eta balizko gorabeherak kudeatzeko, jarraipen-batzorde bat osatuko dute bi aldeek. Honako hauek osatuko dute jarraipen-batzorde hori: Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburu Garikoitz Goikoetxea Etxeberriak eta Herrikide-Eskolapioak ikastetxeko ordezkari Gartxot Aguirre Zabalak.

#### **Hamabigarrena. Iraungitzea.**

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan ezartzen dituen kasuetan.



**Hamahirugarrena. Izaera administratiboa.**

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, beraz, bere klausulek arautzen dute, eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak.

**Hamalagarrena. Legeria osagarria.**

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, lege-arau hauetan xedatutakoa beteko da:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

**Hamabosgarrena. Gardentasun-ataria.**

Hitzarmen honen testua argitaratuko da Tolosako Udalaren gardentasun-atarian.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute bi aldeek, nire aurrean, sinaduran ageri den egunean, eta nik, idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

ZINEGOTZI DELEGATUA Aitor Aguirresarobe Murgui	HERRIKIDE-ESKOLAPIOAK IKASTETXEKO ORDEZKARIA Gartxot Aguirre Zabala
Nire aurrean, UDAL-IDAIZKARIA Sara Berasategui Fuertes	

**BIGARRENA.-** 4.000 euroko gastua onartzea eta xedatzea, 2026ko udal-aurrekontuko partida honen kargura: 0900.226.99.320.00. Betiere 2026ko udal-aurrekontua indarrean egoteko baldintzapean

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmena inskribatzea hitzarmenen erregistroan, eta Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikulua eta 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Euskara eta Hezkuntza Sailari, eta Kontu Hartzailetza Sailari.



## **6. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALAREN ETA LASKORAIN IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA.**

### **IKUSIRIK**

BAKARRA.- Hezkuntza Politika Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko abenduaren 10ean, probidentzia bat eman zuela, non ebatzi zuen espediente bat hastea, Laskorain ikastolarekin hitzarmena egiteko, Usabalgo ikastetxeko jolastokia asteburuetan irekitzeko.

### **KONTUAN HARTURIK**

LEHENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko abenduaren 12an egindako txostenean, hitzarmenaren memoria egin zuela. Gogora ekarri zuen Udalak badituela gai horrekin lotutako eskumenak, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan finkatuak: «10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea»; «19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea»; eta «36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea». Era berean, nabarmendu zuen badela eskaera herrian: Nerabeen Foroak 2024ko maiatzaren 14an aurkeztutako hamazazpi proposamenetako bat da —«Nerabeentzako toki estaliak erdigunean, eguraldi txarra egiten duenerako»—, eta Tolosako Herritarren Batzarraren K gomendioa ere lotuta dago horrekin —«13-18 urteko gazteek ez dute sarbide publikoko espazio estalirik inoren tutoretzapean egon gabe egon eta sozializatzeko (batez ere neguan)»—. Tolosako Hezkuntza Mahaian landutako proposamenetako bat ere izan zen jolastokiak zabaltzea.

BIGARRENA.- Txosten juridikoa egin zuela Idazkaritza Saileko teknikariak 2025eko abenduaren 16an, eta proposamenaren aldeko iritzia eman duela.

HIRUGARRENA.- Kontu Hartzailtza Saileko teknikariak, 2026ko urtarrilaren 20an, hitzarmena sinatzearen aldeko txostena egin zuela, betiere 2026ko udal-aurrekontua indarrean egoteko baldintzapean.

LAUGARRENA.- Hitzarmena egiteko eskumena Alkatearena dela, kontuan hartuta zer zehazten duen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 artikuluan. Hala ere, Tolosako alkateak, 2023ko uztailaren 3an, 2023/1707 Alkatetza Dekretuaren bidez, erabaki zuen zenbait ahalmen Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, eta tartean da hitzarmenak onestea, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpokoak badira. Beraz, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio ebaztea.



Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosako Udalaren eta Laskorain ikastolaren arteko hitzarmena sinatzea, betiere 2026ko udal-aurrekontua indarrean egoteko baldintzapean. Honako eduki hau du hitzarmenak:

### HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA USABALGO LASKORAIN IKASTOLA SCL-REN ARTEKOA

Tolosan, azken sinadura digitalean ageri den datan

### ELKARTURIK

**Aide batetik**, Aitor Aguirresarobe Murgui, Tolosako Udaleko Hezkuntza Politika Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

**Eta bestetik**, Iñaki Olaetxea Amonarriz (NAN: 72475624W), Usabalgo Laskorain Ikastola SCLko zuzendaria (aurrerantzean, Laskorain); egoitza soziala: Usabal; IFK: F20098307.

### ESKU HARTZEN DUTE

**Lehenak**, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

**Bigarrenak**, Laskorainen izenean, Pedro Elosegui Bergareche notarioaren aurrean egindako ahalordetzaren bidez baimenduta.



Bi aldeek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna, eta ondorio horretarako

### AZALTZEN DUTE

VI. 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25.1. artikuluan honako hau ezartzen duela: «Udallerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake».

